

Donostiak 25era murriztuko du turista-taldeetako gehieneko pertsona kopurua



- Turista-talde antolatuak ezingo dira 25 pertsona baino gehiagokoak izan, eta Udalak ordenantza betetzen dela zainduko du, hiriko gune jendetsuenetan bisitari-fluxu ordenatuaren alde egiteko.
- Donostia Turismoak Udaleko hainbat sailekin, talde politikoekin eta elkartutako tokiko gidariek lan egin du bisita gidatu turistikoak osatzen dituzten pertsonen kopurua arautzeko.
- 2024ko apirilaren 10etik aurrera, muga kuantitatiboa 25 pertsona gehi taldeko gidaria izango da, eta nahitaez bete beharrekoa izango da.

Donostia, 2024ko martxoaren 20a

Donostiako Udalak, Donostia Turismoaren bitartez, hirian dabilzan turista-taldeak arautuko ditu, eta, horretarako, laster bisita gidatu turistikoa Espazio Publikoaren Ordenantzan sartzea onartuko du, bisita gidatuetan gehienez ere 25 lagunek parte har dezaten.

Donostia Turismoak Donostiako herritarren **bizi-kalitatea** jarri du bere estrategiaren erdigunean. Horregatik, jarduera turistikoan **kutsadura akustikoa arautu duen** lehen euskal hiria izan da, duela hilabete batzuk megafoniaren erabilera debekatu baitzuen, eta bisita gidatuetarako gomendioen **dekalogo** bat ere argitaratu du. Orain, beste urrats bat eman da erregulazio-ildo horretan, bisitari-taldeak gehienez 25 lagunera mugatuta.

Horretarako, Donostiako Udalak jarduera gidatu turistikoa Espazio Publikoaren Ordenantzan sartzea sustatuko du, eta horrek ahalbidetuko du arau-esparru berri hori, eta zigorrak ere jasoko ditu ordenantza betetzen ez bada.

Neurria apirilaren 10ean sartuko da indarrean, eta tokiko gida-enpresekin adostu dute, muga hori errespetatzeko konpromisoa hartu baitute. Gainera, gida-zerbitzu horiek emateko ordu-muga ezarri da, goizeko 8etatik gaueko hamaiketara bitartean.

Mundu osoko bisitari, turista eta txangozaleen kopuruaren hazkundearekin bat, bisita gidatuen taldeen kopuruak nabarmen egin du gora Donostian azken urteotan. Talde horien presentziak eragina du hiriko eguneroko bizitzan eta bertako biztanleengan, batez ere jende gehien biltzen den lekuetan, eta horietan bizikidetzaren eta mugikortasuna baldintzatu dezake. Horregatik, Udalak eta Donostia Turismoak taldeen presentzia mugatu nahi dute, baita presentzia turistiko hori eta jarduera turistikoa bizilagunekiko bizikidetzarekin harmonizatuko dituen egoera sustatu ere.

“Eskuartean duguna eta kezkatzen gaituena turismoaren kudeaketa da, eta horrek proaktiboa izatea eta aurrea hartzea esan nahi du. Sektorean aukera berriak sortzeko eta donostiarren bizi-kalitatea hobetzeko. Aurrea hartzea arazoak alde aurretik detektatzea eta konponbideak jartzea ere bada”, adierazi du Jon Insausti Kultura, Turismo eta Euskara zinegotziak.

Gomendioa izatetik nahitaez bete behar izatera

Joan den udan, DSS Turismoak gida turistikoari zuzendutako dekalogo bat aurkeztu zuen, bisitarientzako zein herritarrentzako esperientzien kalitatea zaintzeko eta, horrela, Donostia leku jasangarriagoa eta atsegina izan dadin laguntzeko. Gomendio horien artean, taldeen gehieneko tamaina mugatzea nabarmentzen zen, eta oraingo erregulazioarekin nahitaez bete beharreko araua izatera pasatuko da.

Gainera, dekalogo horrek beste gomendio garrantzitsu batzuk ere jasotzen zituen, hala nola: audio-sistema indibidualizatuak erabiltzea; igarotzeko leku publikoak ez okupatzea; udan eta puntako orduetan eremu saturatuenak saihestea; ondareari balioa ematea, kulturari eta hiriko eta lurraldeko tokiko erakargarritasunari; EAEko bi hizkuntza ofizialak ezagutzea (euskara eta gaztelania) gutxienez, edo hiria modu jasangarri eta arduratsuan bisitatzea animatzea.

Muga 25 pertsonakoa gehi gidaria izango da, gehienez.

Insaustik, gainera, sektorearen eta, kasu honetan, turismo-jardueran aritzen diren tokiko enpresen laguntza eta inplikazioa eskertu du, udal-zerbitzuekin batera jarduera hori garatzeko esparrua adostu dutelako.

Hiriko bide publikoan bisita gidatuak egin nahi dituen turismo-gidarien enpresa orok izapide bat egin beharko du. Izapide hori **“Erantzukizunpeko adierazpen”** bat da, online modu errazean egin ahal izango dena, ziurtagiri digitalaren bidez. Ziurtagiri horretan, enpresak edo gidak jarduera egiteko baldintza batzuk betetzeko konpromisoa hartuko du, besteak beste, **25 pertsonatik gorako taldeak ez gidatzeko konpromisoa.**

“Erantzukizunpeko adierazpena” izapidea egitean, gida-zerbitzuen enpresak edo gidak jarduera gidatua egiten duen bitartean berekin eraman behar duen erregistro-zenbakia duen dokumentu bat lortuko du, paperean edo euskarri digitalean. Udaltzainek erantzukizunpeko adierazpen hori eskatu ahal izango diote bisita gidatua egiten ari den profesionalari, eta halakorik ez badute, 750 € eta 1.500 € arteko isunekin **zigortu** ahal izango du.

Izapide horrekin eta lantzen ari diren beste ekintza batzuekin, **Donostia turismoaren kudeaketaren aldatzeko buru diren helmuga turistikoaren artean kokatzen da**, jarduera arautzen eta herritarrentzat atsegina egiten ari baita. Gainera, izapide horri esker, lehen aldiz jaso ahal izango dira hirian lan egiten duten enpresen eta profesionalen datu zehatzak.

Jon Insausti Kultura, Euskara eta Turismo zinegotziaren hitzetan, "garrantzitsua da ezarriko den neurriaren jarraipena egitea, ondorioak neurtzea, sortzen diren kasuistikak ikustea eta sektorearekin aztertzea. Garrantzitsua da neurtzea hobetzen jarraitzeko".

Muga **2024ko apirilaren 10ean jarriko da martxan**. Ondorioak aztertuko dira, eta ez da baztertzen etorkizunerako araudi zehatz bat bultzatzea.